

Goi

Goierritarra aldizkaria

406 zenbakia 2011ko irailak 2



AUTOMODELISMOA

LARRAONDO KULTUR ONDARE

1976tik
betiko konfiantza
eta profesionaltasuna

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 615 78 79 08

 **Nick's**
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 19

Izen ematea

Irailaren 5etik aurrera
Arratsaldeko 6etatik 8etara



Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

Goierri kalea
Tel.: 943 164 048
Faxa: 943 164 703
20240 ORDIZIA

CORNAGO OLIVER Dr.
Ginekologia eta obstetrizia

Endokrinologiako eta
ginekologiako espezialista

Hilekoaren aldaketak,
kiste anitzeko obulutegia,
ile ugaritasuna,
kontrazepzioa...

Ugalkortasun arazoak

Menopausia

Azterketa ginekologikoak

Haurdunaldiaren kontrola

4D ekografia





Etor Mendia

Epa Igor!

Izan diagu mugimendurik abuztuan, ezta?

Aita Santua dela eta bai zalaparta: otoitzak eskatzea baina eraginkorra goa ez al huke izango bidaia honetan xahututako dirutza guztia beharrean daudenei bideratzea? Eta zer esanik ez atzerri-
tik etorritako 'fededun' guzti horiek gastatu ditena...

Somaliara bideratu izan balute bertako arazoa konpontuta! Gero krisiari errua botatzen ziotek, baina non dituk krisia eragitearen errudunak?

Kirolean ere zalaparta. Espainiko Itzulia Euskal herritik igaro behar duk aspaldiko partez. Tourra ere beste nazio batzuetatik normaltasunez igarotzen deken bezalaxe, ondo zegok goi mailako kirol ekitaldi bat gure lurraldean izatea, zaletu asko baigaituk. Hori bai, ez dadila inor ezer inposatzera etorri, errespetatu eta onartu dezatela gure izaera.

Futbolariak ere greban? Hauen agintariak ere ez al ditek akaso zerikusirik krisiarekin? Halere horiek aberatsak izaten jarraituko ditek eta erakunde publikoengan eroriko

Barsa eta Madridek eman dien ikuskizunari buruz zer? Hoiexek dizkiagu, nahi eta nahi

ez, gure seme-alaben portaera eredu

dek zuloak estaltzeko ardura. Eta Barça eta Madrid-ek eman dien ikuskizunari buruz zer? Hoiexek dizkiagu, nahi eta nahi ez, gure seme-alaben portaera eredu. Dopina ez dek kiroletik kanporatu beharreko 'lakra' bakarra.

Euskal Herriko hiriburuetako jaiak ere bazihoaztek bata bestearen atzetik, eta zenbaiten aurreikusten zien (edo desiratzen zien) anabasaran arrastorik kaleetan... Honen ondorio izan ote dek Martin Garitanoren inguruan sortu nahi izan dien zalaparta?

Eta azkenik, azaroaren 20-ari begira (eguna aukeratzaren hasita bai esanguratsua!) akordio zabalik lortuko al ditek euskal alderdi abertzale desberdinen artean? Aukera hau ere pasatzen utziko al diagu espainiar konstituzio ukiezin hori zein errez aldatu daiteken ikusita?



Igor Bueno

Abuztua jun dek, Aita Santua ere bai, eta ez harritu @mikel-
layestaran kazetari ausartak Gadaffi bea atzemango balu datozen egunetan. Zenbat buru hainbat aburu, baina kasu! Tentuz ibili hadi!

Oraingoa ekonomia kapitalista basatiaren krisia duk eta uzten bazieagu gurekin nahi ditekena egingo ditek berriro ere. Izan ere, gogoratzen al haiz zer esaten zigutean aurreko urteetan? Hazteko, "hazi hadi txikia!" Eta horra! Hazi beharrean gizendu egin omen ginean nonbait. Geo sasoiaren jartzeko, errejimena komeni zitzaiguala, eta mesedez, gerrikoa estutzeko! Estutu eta estutu azken zuloraino, eta orain berriz galtzak jeisteko!

Alde batera utzi behar ez genizkian giza eta natura baloreak berreskuratu edo jai zeukeagu. Ezen, esaidak nor arraio ibili behar den delako Abiadura Handiko Tren horretan! Zezenketek baino etorkizun laburragoa dik tren horrek! Utikan datuak ezkutatzen dituzten politikariak eta utikan espekulatzaileen menpean dauden guztiak!

Udal hauteskundeak pasa berri dizkiagu, eta emaitzak hor zerek. Abertzaleak gutxi ginela sinestara nahi zigute-

Errejimena komeni zitzaiguala, eta mesedez, gerrikoa estutzeko! Estutu eta estutu azken

zuloraino, eta orain berriz galtzak jeisteko!

an, eta hara, asko eta jator askoak! Hurrengo hauteskundeetan gehio eta hobeto! Baina beste horri etzaio ba okurritu hauteskundeak ni oportetan nagoenean jartzea! Oain lendakaritxoa falta dek hauteskundeak aurreratzeko. Ezen, hunuzkeo oharu dek bere eskumuturreko PowerBalance delako horri pilak agortu zaizkiola eta esateko ezer gutxi duela, batez ere euskaraz, noski, klaseetara joaten ez bada! Eskumuturreko hori eramanagatik ere, politikaria ez dek kirolari! Greba eginagatik ere, futbola ez dek Jai Alai! Eta Espainiko txirrindulari itzulia hemendik pasatzeagatik ere, gurea ez dek!

Bilboko festatan jokaturako guante laxoa erakustaldi partida, hori bai gurea! Alde batera utzi behar ez genizkian euskal jokoak ere berreskura ditzagula.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L.
Urbialde plaza, 7 - behe
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Goierritarraren azken alean euskaljakintza blogeko irakasle batek “EGA ko azterketen gorabehera” izenburupean egiten dituen hainbat adierazpen ez direla zuzenak argitu nahi dut. Zoritzarrez, nireak ez diren hitzen jabe egin nau.



Iban Asenjo, Hezkuntza Saileko zuzendari obia

Piratarik ez euskaljakintza.com-en

GOIERRITARRAREN azken alean euskaljakintza blogeko irakasle batek “EGA-ko azterketen gorabehera” izenburupean egiten dituen hainbat adierazpen ez direla zuzenak argitu nahi dut. Zoritzarrez, nireak ez diren hitzen jabe egin nau.

Ezer baino lehen esango dut oso interesgarria dela honen atzean dagoen gogoeta pedagogikoa, hots, ea ikastola bateko xedeak, gaitasunak, helburuak... eta, beraz, ebaluazioak, euskaltegiarenak diren ala ezberdinak diren. Oraingo honetan, berriz, hauek dira argitu beharreko kontuak:

1. Ez dut inoiz esan aipatutako irakaslea pirata denik. Azaldu nuena izan zen “copyright” eskubideekin babestuta zegoen liburu baten edukiak interneten jartzea inorekin hitz egin gabe eta baimenik eskatu gabe, ekintza pirata zela. Amarauna irriti-saioan egindako adierazpenak oraindik sarean entzungai daude nahi duenak egiaztatu ditzan. Hala ere, 7-24 interneten konektatuta dagoen orok jakingo du Ipar Europan zer nolako arrakasta lortzen ari den software askea, egileen eskubideak eta patenteak ezabatzea eskatzen ari den mugimendu sozio-politikoa. Euren burua piratatzaletzat jotzen dute eta bere aldarrikapenak aurrera eramateko Pirata izeneko alderdia sortu dute. Baina egia da beste era batera esatea badagoela: Egin zuena ilegala da. Orain, baimena eskatu eta jaso ondoren zintzilikatu ditu azterketak, ez aurretik. Honen harira aipatu egin behar da bere blogean ezinezkoa dela edukien sortzaileen izenak topatzea. Ulergarria da programa informatiko batean “kopiatu eta itsatsi” oso antzekoa den ariketa bat egin ondoren errekonozimendua aldarrikatzea baina euskalgintzan urteak daramatzaten egile intelektualek ezabatuta daude.
2. Blogeko irakaslea “esfortzu handi bat eginez ixilik geratu” zen, medioek nahi zutena esaten omen zutelako. Kuriosoa da hori esatea, hainbat kazetarirekin hitz egin zuen, irriti-saio batean parte hartu zuen eta interneten nahi zuena idatziz baitzuen. Hitzek hitz, foro batean horrela idazten zuen: “Yo creo que el artículo de El Diario Vasco explica con bastante claridad lo que ha ocurrido”. Tamalez, ukatu ezin duena da medio guztiek, Deia egunkariaren salbuespen bakarrekin, bere adierazpenetan oinarritutako artikulua baino ez zituztela argitaratu, Hezkuntza Sailaren iritzia jaso gabe.
3. Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko teknikariek berarekin

hirutan hitz egin behar izan zuten azaltzeko, ahalik eta goxo-en, txukunen, begirunezkoen... berak egin zuena legediaren kontra zihoala eta horretan ez zegoela zer eginik. Ordainetan, berak blogean polemikaren iturburu bilakatu zen artikulua idatzi zuen.


4. Era interesatu batean, nik irriti-saioan egindako adierazpenak eta Hezkuntza Sailak ateratako prentsa-oharra kontrajartzen saiatu da. Berak jakin badaki irriti-saioko hitzen eta prentsa-oharraren egilea berbera dela. Berak ez bezala, prentsa-oharra ikastolako zuzendaritzarekin elkarlanean prestatu genuen eta komunikabideei bidali aurretik irakaslearen oniritzia jaso zuen.
5. Irrati-saioan nire hitzak irakaslearenak baino astebete beranduago jaso ziren. Tarte horretan sortu zen polemika mediatico guztia. Han esandakoa, beraz, ez zen polemikaren iturria izan. Irrati-saioko hitzek soilik izan zuten jarraipena interneteko foro jakin batzuetan. Uste dut auzi hau frankismoak utzitako hildakoekin alderatzea astakeria galanta dela. Irakasle horrek pentsatu al du familia bat nola sentitu daitekeen ikusten duenean umearen aurre-matrikula egin eta berehala informazio hori interneten filtratu dela? Non gertatzen dira umeen datuen babesa eta konfidentzialtasuna?
6. Ikastolako zuzendariak, irakaslearen kexak eta ezinegonak bultzatuta, hirurok elkartzeko eskatu zidan, ahalik eta eronenean gai hau ixteko. Ez nion inongo eragozpenik jarri. Nire jarrera eskertu eta irakaslearekin hitz egin bezain laster niri deituko zidala agindu zidan. Gaur arte.

Oso argi daukat korapilatu den arazo honen muina ez dagoela pirata hitza erabiltzean. Blogeko irakaslea gezur horri eutsi nahian dabil berak bakarrik sortu zuen arazoari ihes egiteko eta biktima moduan agertzeko.

“Esperemos que el nuevo Gobierno de Patxi López ponga las cosas en su sitio” idatzi zuten goian aipatutako blog batean. Ez ditut zerrendatuko bi urte hauetan euskarak jaso dituen erasoak eta atzerapausoak. Dena den, aipatu behar dut 2009ko otsailean EGA azterketa prestatzeko 2008ko azterketak era interaktiboan egotea ezinbestekotzat jotzen zuen bitartean, 2011ko irailean ez dugula ez 2009 ez 2010ko azterketarik, ez paperean, ez era digitalean, ezta formatu interaktiboan ere. Berak orain, Patxi Lopezen aholkularia dena, paradoxikoki, ez dauka kezkarako eta kexarako inongo motiborik.

Zer da energia geotermikoa?

Energia geotermikoa lur barneko beroa aprobetxatzen duen energia berriztagarria da. Lur barnea bero dagoenaren froga ugari ditugu, hala nola sumendiak, geiserrak, edota gure inguruan azaleratzen diren ur termalak. Esate baterako, Beteluko ur termaleko bi iturri 22°C-tan eta 32°C-tan azaleratzen dira. Fiteroko ur termalen iturria aldiz 50°C-tan azaleratzen da. Egoera normaletan batez beste lur barnerantz 100 m sakontzean 3°C igotzen da luraren temperatura. Honi gradiente geotermikoa deritzogu. Beraz, 2-3 km sakontzean arroak (eta ura) 60-90°C-tan egon ohi dira. Baina ingurune batzuetan gradiente hau askoz handiagoa izan daiteke, besteak beste sumendi inguruetan eta ondorioz 1,5-2 km-ko sakoneretan arroak 200-300°C bitartean aurkitzen dira.



Ur beroa atera eta botza sartzeko zundaketa sistema (EEE).

tuz. Beste zundaketa hodi baten bidez ura lurperatu egiten da akuiferoa ez husteko. Teknika hau Italiako Larderellon erabili zen lehen aldiz 1904an. Gaur egun mundu mailan gehien garatua dagoen lekua Islandia da, bertako energiaren % 81 energia berriztagarri honetatik lortzen dutelarik.

Temperatura altuko energia geotermikoa

Gradiente geotermiko altuko inguruneetan, 2 km-ko sakoneran 150°C-ak gainditzen dituzten eremu geologikoei deritze. Normalean eremu bolkanikoekin zuzenean erlazionaturik daude. Magmak fluidoak (ura eta beste mineral ugari) berotu egiten du 150-400°C temperatura lortu arte. Zundaketa (sondeo) batzuen bidez, ur bero edo lurrina atera egiten da eta honek turbina batzuk martxan jartzen ditu, energia elektrikoa sor-

Temperatura baxuko energia geotermikoa

Gradiente geotermiko arrunta, hau da, 2 km-ko sakoneran 150°C-tik beherako temperatura duten eremu geologikoak dira. Hobi hauek dira mundu mailan ugariak. Temperatura baxua denez, elektrizitatea sortzeko baino berokuntza sistemetak, negutegiak berotzeko, bainuetxeetan bero terapeutiko gisa edota etxeetako ur beroa lortzeko erabiltzen da. Aurreko adibidean bezala, temperatura baxuetakoetan ere zundaketa

baten bidez ur beroa ateratzen da eta beste baten bidez ura berriro barneratzen da naturalki berotua izan dadin. Lurpeko temperatura oso konstantea denez, urte osoan zehar erabili daiteke, giro tenperatura baino hotzagoa udan eta beroagoa neguan.

Baldintza geologikoak

Energia geotermikoa aprobetxatu ahal izateko, baldintza geologiko batzuk bete behar dira.

- ✓ Temperatura altuko hobiak lortzeko eremu bolkaniko batean egon behar du.
- ✓ Sakonera jakin batean (1,5-2 km) arroka iragazkorra aurkitzea, ura eta fluidoak bideratzeko gai izango dena.
- ✓ Akuifero edo arroka hauen inguruan arroka iragazgaitzak egon behar dira ura barreiatzen ez uzteko eta leku konkretu batean berotzeko.
- ✓ Temperatura baxuko hobi geotermikoetako fluidoan tenperatura dela eta (60-90°C), aprobetxatuko duen eraikuntza oso gertu egon behar du. Normalean zundaketaren gainean egoten dira.

Arantxa Bodego
Iturria: EEE, IDAE

JAKIN BEHARREKOAK

Basoak birlandatzea klima aldaketaren aurkako neurria izan arren, Nature Geoscience aldizkarian argitaratutako ikerketa batek dioenez, basoen birlandatzea ez da nahikoa izango klima aldaketa geldiarazteko.

Ardi latxaren bazka eta produkzioaren arteko erlazioa aztertuta, EHUKo tesi batean. Tesi honetako ondorio nabarmenena, urtaro ezberdinetako bazkak zuzenean eragiten duela esne eta gaztaren kalitatean.

Hegaztien eraztuntze teoriko-praktikoa antolatu du Aranzadi Zientzia elkarteak, irailaren 17an eta 18an. Ornitologian interesa duen orontzat zuzendua dago eta ez da aurretiko ezagutzarik behar. Parte hartzeko: oficinaanillamiento@aranzadi-zientziak.org

LIBURUA

‘La experiencia fluviofeliz’ Javier Martínez Gil ‘Uraren Kultura Berria’ ko hidrogeologoak idatzi duen liburuak erreka sentitzeko era ezberdina proposatu nahi digu. Piraguan eginiko bidaia batean bizitako sentipenak eta Pipa Alvarezaren argazkiek osatzen dute liburua. Gainera urarekin zerikusia duten olerki eta abestien CD dakar.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albistean bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Gaur egun mundu mailan gehien garatua

dagoen lekua Islandia da,

bertako energiaren % 81 energia

berriztagarri honetatik lortzen dutelarik.

Orain sarean:

Goierritarra

baino gehiago



Goierriko
agenda
eguneratua

+
aurrerapenak

Ale
zaharrak
PDF-n

The screenshot shows the Goierritarra website interface. At the top, there's a navigation bar with links like 'Berriketan', 'Saioa hasi', 'Erregistratu', and 'Guneen egileak'. Below this is a search bar and a 'Goi' logo. The main content area features several articles. One prominent article is 'Koldo Urrestarazuren 10. Zegama-Aizkorri maratoia' with a photo of a man. Other articles include 'Olaberriko kuttunen babesean', 'Nolakoak izan ziren 1979ko udal hauteskundeak?', 'Haitz', 'Xanet Arozena. Olatzungo H11', 'Bat eta bat', and 'Etor Mendia'. There are also sections for 'ALDIZKARIAK [PDF]', 'BERRIKETAN.INFO', and 'IRITZIA'. The website is in Basque and includes a 'Goi' logo in the top left corner of the page content.

Azken
aldizkariko
eduki osoa

+
eduki
gehigarriak

Iritzi
artikuluak



Marian Bidegain



“Erabiltzen ez den hizkuntzak ez du ezertarako balio”

Lazkaoko Maizpide euskaltegiaren zuzendaria da Marian Bidegain gabiriarra.

Uda euskara ikasteko garai egokia al da?

Ez dago garai txarrik euskara ikasteko.

Eta Maizpidera etortzeko?

Bai, opor usaina edukiagatik gogor lan egiten da.

Nondik etortzen dira ikasle gehien?

Gezurra badirudi ere, oraindik ere gipuzkoarrak dira nagusi gurean.

Urrunetik etorritakoak izango dituzue orain ere. Nongoak?

Bai, hala da. Internazionala da Maizpide, orain ere baditugu mordoxka bat: Mexikokoak, Pakistangoa, Alemaniakoak, Errusiakoak, Ingalaterrakoa, Frantziakoak, Poloniakoak, Boisekoak, Bartzelonakoak, Madrilgoa, Leidako...

Ikasle mota berdina al dira urte osoan daudenak eta udan datozenak?

Ez dago alde handirik, egia esan, denek ikasi nahi dute azkar, lehenbailehen.

Azken 20 urteetan ikasleen profila aldatu al da?

Bai, jakina, asko aldatu da, gizartea bera aldatu den neurrian.

Lazkaon entzundakoa: “Ondoko mahaikoak ez dira lazkaotarrak. Maizpidekoak izango dira. Ez dira Maizpidekoak erdaraz ari dira eta”. Bada, bai, Maizpidekoak ziren.

Ez da, bada, ohikoa. 1. urratsekoak ote ziren? Egun txarra izan eta erdi etsita ote zeuden?...

Uztaileko gauetan, Lazkaoko plazan: antzerki, musika, bertsolari... Maizpideko ikasleak eta lazkaotarrak. Harremanik sortzen al da?

Orain 20 urte baino nekezago, baina, tira... gure ahalegin falta-

gatik, behinik behin, ez da izango.

Zenbat bikote sortu ditu Maizpidek?

Auskalo! Ez dugu horren kontadurik eraman.

Eta bikoterik desegin al du?

Barrea eta negarra gertu izaten dira.

Zer esango zenieke ondorengo pertsonei:

Euskara oso hizkuntza zaila da.

Hizkuntzak guztiak dira zailak edota errazak!

Euskara badakit, baina lotsa ematen dit hitz egitea.

Erabiltzen ez den hizkuntzak ez du ezertarako balio.

Ez daukat euskara ikasteko denborarik.

Aitzakia gutxiago! Gaur horrek ez du balio, euskara ikasteko modu asko daude.

A mí dame el título y déjate de chorradas.

Txorrada horiek kontuan hartuta bidea motzagoa da titulua lortzeko ere, hor dago koxka!

Zuretzat zer da euskara?

Komunikatzeko nire hizkuntza

Gabirian biziko ez bazina?

Oso behartuta beharko luke beste nonbait bizitzea, eta herri min handia izango nuke.

Oporretarako leku bat:

Konpainia onean, edozein toki.

Zaletasun bat:

Irakurtzea eta gurutzegramak eta sudokuk egitea.

Urtaro bat:

Udazkena.

Amets bat:

Euskal Herri euskalduna. Ez ahal da amets hutsean geratuko!



Jean Christophe Jouchoux, Zaldibian bizi den frantziarra, automodelismo mekanikaria eta gidaria:

“Autoaren hobekuntza ez da inoiz amaitzen”

Mekanikaria da afizioz eta ofizioz.
Astegunak autoen motorrak
konpontzen pasatzen ditu

Beasaingo tailer batean. Asteburuetan, berriz,
automodelismoko lasterketako autoa prestatu
eta lasterketetan parte hartzea du gustokoen.

Jean Christophe Jouchoux da bera,

Zaldibian bizi den frantziarra, 1:8 eskalako
autoen mekanikari eta pilotua.

Auto muntatu berria esku artean duela hartu gaitu Jean Christophe Jouchoux-ek Zaldibiako bere etxean. Segituan hasi zaigu bere zaletasunaren ingurukoak azaltzen, "Auto osoa egiteko adina ordezkio pieza ditut, eta hoiekin bigarren autoa muntatu dut. Pieza txiki asko gastatzen joaten dira eta beti aritu behar izaten dut aldatzen. Horregatik muntatu dut, zein pieza falta diren ikusteko".

Benetako lasterketetako autoak bezelakoak dira, baina miniaturan. Muntatzeko moduak, moldaketek zerikusi handia dute autoak izango duen portaeran. "Adibide bezala gorpilak piezatxo bat lasatu edo estutuz gero errueda okertu edo zuzendu egiten da. Gehiago okertuz gero, bihurtuneetan gehiago heltzen du, baina, kono eran gastatzen dira gorpilak. Zuzenago jarriz gero, berriz, azeleratzean trakzio gehiago du. Lau gorpiletako trakzioa dute autoek", azaldu du Jouchoux-ek.

"Auto marka ezberdinak daude, baina denak berdintsuak dira, aldatzen dena prezioa da", dio irrifarrez. "Orain motor italiar asko dago baina garestiak dira. Nik japoniarra erabiltzen dut, merkeagoa da eta. Italiarrak 800 euro inguruan dabilta eta japoniarrak 200-300 inguruan; alde handia dago".

Lehiaketetan ere egunero auto osoa desmuntatzen dutela azaldu digu frantziarrak: "Ostiralean entrenamenduak izaten ditugu, larunbatean sailkapenak eta igandean lasterketa. Egunero auto osoa desmuntatzen dugu, piezaz pieza, izan dezakeen edozein akats aurkitzeko. Hori egiteko 3-4 ordu behar izaten dugu. Autoa berria denean gehixeago, oraindik piezak beraiekin lekura ondo moldatu gabe egoten baitira. Ordu asko sartu behar dira, zeure materiala noiz eta hobeto ezagutu, gehiago fintzen duzu direkzioa, esekidura, motorra, aldagailua, enbragea..."

Mekaniko, piloto denetik egiten al duzue?

Nire kasuan biak egiten ditut. Baina kasu asko daude aitzak zale-tasun handia duena, mekanikari bezala esperientzia handia duena, baina gidatzeko orduan semea aritzen da, erreflexu eta abilezia gehiago duelako. Frantzian aritzen nintzenean nire aitzak ez zuen laguntzeko asti handirik eta neronek egiten nuen mekanikari lana ere. Hori bai, berak lasterketetan laguntzen zidan, gasolina betetzen...

Bat formulari bezala, depositua bete beharra ere izaten da beraz.

Bai lasterketak 20 minutukoaka izaten dira eta sailkapenak 7koak. Deposituak, berriz, 5 minuturako erregaia izaten du. Beraz 5 minutuero geratu eta 6-7 segundu galtzen dira. Autoa horretarako dagoen bidean sartu behar da, laguntzaileak hortik atera, gasolina bete eta berriro ere pistan jartzen du.

Nitrometanol nahasketa bat da gasolina: %25ean. %35-40an jarriz gero azkarrago ibiliko litzateke, baina horrela nahikoa da.

Arrankatzeko aparagailu bat ere badugu. Lehenik bujia berotu eta arrankatu egiten dugu. Lasterketan zehar pista-tik atera eta motorra gelditzen bada, ekarri eta arrankatu beharra daukagu. Auto elektrikoek ez dute arazo hori, haiei motorra ez zaie itzaltzen.

Elektrikoek zarata ere gutxiago aterako dute.

Hori da, gurek berriz, hots asko ateratzen dute. Oraingo autoek haize filtroa eta eskapea hots gutxiago ateratzeko dute diseinatuta, baina hala ere zarata handia izaten da lasterketetan.

Ze abiadura harrapatzen dute autoek?

Azken lasterketan radarra zegoen helmugako zuzengunean eta 110km/h-ko abiadura hartzen genuen. Pinoiak aldatuz gero azkarrago joan liteke, baina gure pistetan bihurtune asko eta

**Ostiralean entrenamenduak izaten
ditugu, larunbatean sailkapenak
eta igandean lasterketa.
Egunero auto osoa desmuntatzen
dugu, piezaz pieza, izan dezaken
edozein akats aurkitzeko.**



**BEASAINGO
UDAL
EUSKALTEGIA**

1.2.3. eta 4. maila, EGA, HABE
eta Hizkuntza Eskakizunak.
Auto-ikaskuntza.

Matrikulazio epea:
Irailaren 1etik 20ra

Informazioa:
943 02 81 00



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

zuzengune bakarria egoten da, eta horrela bihurtzen da artea hobe lortzen dugu.

Motorraz gain, karrozeria ere zeuk moldatzen al duzue?

Karrozeri guztiak berdinak dira, plastiko gardenezko moldeak izaten dira. Gure gustura moztu eta margotzen ditugu. Aurrerago jarri gero direkzio gehiago, atzerago jarri gero atzeko gurpilek gehiago heltzen dute. Autoaren portaera zerikusi handia du karrozeriak.

Lasterketetan zer da garrantzitsua, autoa, gidaria...

Dena da garrantzitsua. Pazientzia izan behar da. Zure mailakoekin hasi eta pixkanaka aurrekoen pare ibiltzen saiatzea. Besteek nola egiten duten ikusi, ikasten joan... Garrantzitsua zeure materiala ondo ezagutzea da. Entrenatu, akatsak ikusi eta autoa bere puntuan jartzea.

Nola entrenatzen duzue?

Oso gutxi entrenatzen dugu. San Adrianen (Nafarroa) badago pista txiki bat, baina auto hauentzat juxtu xamarrekoa da. Zaragozan hobe dago, baina, urutiago. Tarteka joaten gara asteburu pasa baina denbora asko behar da. Hemen bazegoen bat Martutenen, egokia zen, baina itxi egin dute. Gipuzkoan pista baten beharrean gaude. Pista batek denetik behar du, bihurtune zabalak, estuak, txikaneak, zuzengunea...

Entrenamentua bera baino garrantzitsuagoa da autoa ondo prestatzea. Bihurtuneetan autoaren pisua (2 kilo pasatxo) ondo orekatu behar da, gurpilek ondo heltzeko. Pisuak garrantzia handia du, zenbaitek autoari torloju guztiak aldatu eta titaniozkoak jartzen dizkio, pisua arindu eta pisu hori autoan azpikaldean eta komeni zaion puntuan gehitzen dio gehiago heltzeko. Autoaren hobekuntza ez da inoiz amaitzen.

Ordu asko dira beraz.

Bai, prestatzen gidatzen baina askoz ere denbora gehiago behar da. Baina, noiz eta gehiago prestatu gustorago gidatzen duzu autoa. Ikusten duzu denborak hobetzen dituzula, autoa gehixeko fintzen duzu... ez da inoiz bukatzen. Aurkakoa ere gertatzen da, zerbait gaizki egin duzu, autoa ez dabil behar bezala eta nahi duzun guztia ukitu dezakezu, baina, akatsa aurkitu eta zuzendu arte ez da autoa ondo ibiliko. Autoaren portaerari, ateratzen duen soinuari, beti adi egon beharra dago. Kontzentrazio handia behar da lasterketetan.

Elkarri laguntzen al diozue?

Bai, aritzen gara aholkuak eman eta entzuten. Baina gero denon gidatzeko modua desberdina da eta autoa desberdin prestatu behar da. Batzuk modu erasokorrangoan gidatzen dute, beste batzuk finagoak dira eta niri hori gehiago gustatzen zait, txukunago gidatu eta gupil gutxiago gastatzen duen gidatzeko modua. Zenbat olio sartu, zein malguki jarri... hitz egiten dugu. Baina bakoitzak bere erara egiten du. Niri hori gustatzen zait, mekanikoki autoa modu batera edo bestera prestatzeko laster-

Frantziarra Zaldibian

Zer egiten du frantziar batek Zaldibian?

Lan egin. Nire bikotea hemen bizi zelako etorri nintzen 2006an. Bera Dominikar Errepublikakoa da eta 16 urte daramatza hemen, Tuteran eta Galizian bizi izan ondoren iritsi zen. Ni, berriz, zuzenean Zaldibiara etorri nintzen eta berehala aurkitu nuen lana mekanikari bezala.

Frantziar nongoa zara?

Lourdes ingurukoa, Nestalas-Pierrefittekoa, Tourmaleten eta Luz Ardidenen oinean.

Zer moduz bizi zara Zaldibian?

Lasai. Herri txikia da eta denok ezagutzen gara.

Zer gustatzen zaizu gehien Goierri?

Eguraldia, bero handirik ez duela egiten. Eta giro ona dagoela, jendea oso lagunartekoa dela. Egia esan lasterketetan edo kanpoan ez bagabiltza Zaldibian bertan egoten gara, ez gara Beasaina eta Ordiziara asko joaten. Garagardo batzuk hartu, pintxoak jan... Sagardotegiak eta txuletak asko gustatzen zaizkit. Hemen ospakizunak lagunartean eta janaren inguruan izaten dira, elkarteetan, sagardotegietan... Frantziar etxean egiten da askoz ere bizitza gehiago.

ketan zein eragin duen aztertzea.

Lehiaketa hasi aurretik asteburu batean lagun talde bat elkartzeko gara Madrilan edo, eta hor aritzen gara proba desberdinak egin eta autoaren portaera aztertzen. Horixe da niri gustatzen zaidana. Hori bai beti izaten dira, zure akatsa ikusi eta laguntzeko prest egoten ez direnak. Baina zuk laguntzen baduzu, gero zuri ere lagunduko dizute.

Piezak lortzeko, erosteko, saltzeko, muntatzeko interneten bidez egiten dut asko, foroetan sartuz... Ahokuak ematen dizkiogu elkarri. Frantziar piloto asko dago batere laguntzen ez dutenak. Jarrera hori ez dut batere ulertzen.

Frantziar ba al dago zaletasunik?

Bai, handia dago, baina Baiona edo inguruetan ez dago zirkuiturik. Gertuen Paben, Tarbesen edo Bordelen daude. Frantzi erdi aldean aspalditik dago zaletasun handia. Espainian lur orotako ibilgailuetan beti egon da zaletasuna, baina, zirkuituetan azken urte hauetan asko hazi da.

Eta Goierri inguruan?

Auto hau lehiaketakoa da, zirkuituetan bakarrik ibili liteke. Horrelakoekin ez da jende gehiegi ibiltzen, Donostia inguruan



Zurgindegia

ATEAK
LEIHOAK
ARMAIRUAK
ESKAILERAK
CNC LANAK
FENOLIKO LANAK
OBRAK
ERREFORMAK

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxe: **943 88 90 17**


PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01


AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behe **SEGURA**



ba dago zaletasuna. Jende askok du erositako autoa, gainera merkeagoak izaten dira; hauekin edozein aparkalekutan edo industriadetan ibili liteke, denbora pasa modura. Lur orotako ibilgailuak ere badira. Gureak oso baxuak dira, ia lurra ikutuan joaten dira, beraz, zoru leuna behar dute. Eta horrez gain pistak garbia egon behar du, bestela zikinkeria sartu eta korrea eta hainbat pieza hondatu egiten dira.

Lasterketa asko izaten al dituzue?

Espainiako txapelketan 4 lasterketa izaten dira. Gero eskualdeka gehiago izaten dira. Aurten, adibidez, San Adrianen zazpi, Zaragozan bederatzire... Baina ezinezkoa da denak egitea. Denbora izanez gero joaten gara.

Zu zer moduz moldatzen zara?

Bueno, hor ibiltzen gara, onenetara gerturatzen saiatuz. Ba dira 4 pilotu, oso onak direnak eta beti finalean sartzen direnak. Gu final erdietan eta final laurdenetan ibiltzen gara borrokan. Niretzat garrantzitsua inor ukitu gabe ibiltzea da. Saiatu besteekin pare ibiltzen baina ukitu gabe. Zuk besteak errespetatzen badituzu, zu ere gehiago errespetatzen zaituzte. Horregatik ibiltzen naiz beti kolore berdinarekin, jendeak ezagutzen nau eta errespetatzen nau. Irabazten badidate, azkarrago joan direlako izan da.

Besteen lasterketak eta sailkapenak ere jarraituko dituzu noski.

Garai batean itzuliak eskuz kontatzen ziren markagailu batekin. Baina, gaur egun, autoek azpikaldean txip moduko bat daukate eta horrek buelta guztiak eta denborak markatzen ditu. Eta internetara konektatuta badago etxetik ere lasterketak jarraitzeko modua izaten da. Askotan, adibidez, suspentsio biguna jarri duzu eta uste duzu oso erraz ibili zarela, baina bukatutakoan interneten denborak aztertu eta konturatzen zara uste baino mantsuago ibili zarela.

Zaletasun garestia al da?

Autoa bera erostea da garestia, gero ez du hainbeste gastu. Baina txapelketetara joateko, asteburu pasa joan behar zara eta bidaia, lo egitea, jatea... azkenean garesti ateratzen da. Lasterketetan izen ematea 40 euro izaten da. San Adrianen kide egitea 200 euro kostatzen da, gero urtero 50 euroko kuota ordaintzen da eta entrenatzea eguna 10 eurotan ateratzen da. Zaragozako pista oso ona eta hileroko 20 euro ordaintzen da. Garestiagoak ere izaten dira.

Batzuk modu erasokorragoan gidatzen dute, beste batzuk finagoak dira eta niri hori gehigo gustatzen zait, txukunago gidatu eta gurril gutxiago gastatzen duen gidatzeko modua.

Gipuzkoako herriren bat prest balegoke, gogoz hartuko zenukete zirkuitu bat.

Bai, erakustaldiren bat ere gustura egingo genuke, herriko jaietan edo. Gasteiz eta Bilbon badaude bi zirkuitu, baina, auto txikiagoentzat dira 1:10 eskalakoentzat. Gurea 1:8koa da eta eskala handiagoa ere badago, 1:5koa.



Auzolanari monumentua

Zeraingo Larraondoko zerrategia Kultur Ondare
Monumentu izendatu du Eusko Jaurlaritzak

Zeraingo
Burdinaren
Mendiak 2008.

urtean Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailaren Monumentu
Multzo izendapenaren
jaso zuenetik hiru
urtera etorri da
Zeraina bigarren
monumentu izenda-
pena: uztailaren
19an, Kultur
Ondasun gisa,
Monumentu izenda-
pena jaso zuen
Zeraingo Larraondo
zerrategiak. 1980eko

hamarkadan zerainda-
rrek herriko altxorak
berreskuratzeko har-
tutako bideari eman-
dako sariak dira izen-
dapanak.

Asteburuetan Zeraina
hurbilduta, iragana,
bi bizimodu, bi lanbi-
de gertutik ezagutze-
ko aukera paregabea
dago Zeraingo bi
altxorrei eta bi monu-
mentuei esker.

Ondorengo bi orriotan
Larraondo zerrategira
eta Burdinaren men-
dira gerturatu gara.



1980eko hamarkadan, herrian altxor ugari zituztela jabetu ziren zeraindarrak eta horiek berreskuratzeko apustua egin zuten, "herriaren nortasunaren isla zirelako eta herriaren-gandik jasotakoa herriarrei nahiz kanpotarrei erakutsi behar zitzaizela erabaki zela-ko". Filosofia horren adibide-etariko bat da Larraondoko zerrategia: Larraondo baserri-ko familiak Zeraingo Udalari eman zion Larraondoko zerra-
tegiareen erabilera zesio baten bidez, 100 urterako. Udalak zerrategia zaharberritu eta balioan jartzeaz gain, epe horretan mantenimendu lanak egiteko ardura hartu zuen eta bisitatu nahi zuen edozeinentzat erakusgarri jarri zuen.

Zerrategiaren jatorrizko itxurari eusten saiatu ziren zeraindarrak, ahalik eta alda-
ketarik gutxien eginez.

Eraikinaren egitura, aldaparoa eta errekatxoaren bidea esate baterako, lehengo eran man-
tendu zituzten.

Monumentu izendapena

Uda honetan bertan, uztaila-
ren 19an, Eusko Jaurlaritzako
Kultur Sailburutzak, Zeraingo
Larraondoko zerrategia Kultur
Ondasun gisa, Monumentu
izendapena emanez, Euskal
Kultura Ondarearen Zerrenda
Orokorrean sartu du.
"Zerainen urteetan zehar lan-
eredu izan den auzolanaren

ondorio besterik ez da", dio
zeraindarrek. "Zeraingo herri-
tarren auzolanaren ondorioz
eraberritu eta mantendu da
Larraondoko zerrategia.
Auzolana da, era berean, eze-
rezen truke ondare pribatu
bat herriaren esku jartzea ere,
eta baita ondare hori bisitatu
nahi duen orori erakustea ere.
Azken batean, Zerainen den-
bora askoan oinarri izan
duten auzolanari esker jaso
du Zeraingo Larraondoko
zerrategiak Kultur Ondare
Monumentu izendapena".

**"Zerainen denbora askoan oinarri
izan duten auzolanari esker jaso
du Zeraingo Larraondoko
zerrategiak Kultur Ondare
Monumentu izendapena"**

Autowag




☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Larraondoko zerrategia

Zeraingo Larraondo baserriko Higinio eta Santiago Alustiza Zabaleta anaiek eraiki zuten Larraondo zerrategia 1890. urte inguruan, Lasurtegi erreken ura eta inguruko basoko egurra aprobetxatuz. Erabat autodidaktikak omen ziren bi anaiak eta Gipuzkoan industria iraultzak gorena jo ez zuen garaian, multzo hidrauliko industrialak sortu zuten. "Aurreko mende amaierako teknologien erreferentzia historikoa dugu gaur egun zerrategi hau", diote Zeraingo Turismo bulegoko arduradunek.

1960. urte ingurura arte, egon zen martxan Larraondo zerrategia. Zerrategiaren garairik onenean, 14 makina martxan izatera iritsi omen ziren.

Baserriaren osagarri

Baserriko lanen osagarri zen zerrategia. Batez ere udaberrian eta neguan lan egiten zuten zerrategian, Lasurtegi errekan ur gehien zegoen garaian, eta baserriari lanik gutxiena zegoen garaian hain zuzen ere. Lasurtegi errekatik hartutako ura zerrategiaren goialdean dagoen aldaparora bideratzen zuten eta energia hidraulikoa sortzen

zuten. Ur horrekin bi turbina jartzen zituzten mugimenduan: turbina txikia argia lortzeko eta turbina handia, zerrategiko tresnak mugitzeko. Turbinaren ardatzean hiru txirrika zeuzten, eta bakoitzetik uhal bana igotzen da zerrategiko tresnara.

Turbina handia, hiru uhal

Uhal bakoitza zeregin jakin baterako da. Lehenengo uhalarekin ardatza mugitzen zen eta honi loturiko hainbat tresna jartzen dira martxan: tornua (gehienbat baserriko tresnen kirtanak egiteko erabiliko zen, baina baita etxeko altzarientzako hankak egiteko ere); zepilua (egurra lisatzeko); deztera (baserriko tresnak zorrozteko); esmerila (zerrak zorrozteko); errota txiki bat (alea txikitzeko); pulidora (egurrari ditzira ateratzeko); taladroak (zuloak egiteko); eta sutegia (sutegian hauspoari ematen ibili beharrean, hauspo edo bentiladore sistema bat mugitzen zen, honekin sutegian sua egiten zen, burdina guritu eta atzean ingudean mailuekin golpeak emenez burdinazko tresnak egiteko, edo eta batik bat zerrategiko tresnak konpontzeko).

Baserriko lanen osagarri zen zerrategia. Batez ere udaberrian eta neguan lan egiten zuten zerrategian, Lasurtegi errekan ur gehien zegoen garaian, eta baserriari lanik gutxiena zegoen garaian hain zuzen ere.

Bigarren uhalarekin zerra zirkularra mugitzen da. Egur txikia mozteko erabiltzen da. Hirugarren eta azken uhalarekin zinta zerra mugitzen zen. Zuhaitzen enborretatik ohol eta zutabeak egiteko erabiltzen zen hau. Bertatik bertara zuten lehengaia. Baserri inguruko larreak ez beste ingurune ia guztia basoa baitzen: haritzak, intxaurrondoak, gaztainondoak, makalak...

Beasain

Beasainmendiko festak

Irailak 3, larunbata:**21:00etan:** Herri afaria.**Ondoren:** Auzoko mus txapelketa.**Irailak 4, igandea:****08:00etan:** Suziriak.**11:00etan:** Herri meza trikitilari eta bertsolariekin.**11:30ean:** Kros herrikoia.**11:45ean:** Aizkorri Mendizale elkartekoei ongi etorria.**12:00etan:** Laja eta Mikel trikitilariak.**Ondoren:** Mikel Mendizabal eta Andoni Egaña bertsolariak.**13:00etan:** Auzoko Joxe Goitia omenduko dute.**Ondoren:** Jokinen oroimenean aureskua eta lore eskaintza.**13:30ean:** Herri kirolak: Iñaki Azurmendi eta Floren Nazabal aizkolariak.**14:30ean:** Bazkari herrikoia.**17:00etan:** Haur jolasak.**18:30ean:** Erromeria Laja eta Mikelekin.

Beasain

Igartza-Loinatz auzoko festak

Irailak 9, ostirala:**19:00etan:** Txupinazoa, buruhandi eta txistulariekin.**20:00etan:** Igartza Loinazko IV. Ardo dastatzea.**20:30ean:** Animazioa.**22:00etan:** Antzerkia.**23:00etan:** Kontzertuak.**00:00etan:** Igartza Loinazko V. Txapel jaurtiketa txapelketa.**00:00etan:** Dj Olarius eta Dj Choix gaztetxean.**Irailak 10, larunbata:****11:00etan:** Marrazki tailerra eta hamaiketakoa.**15:00etan:** Futbito txapelketa.**16:00etan:** Mus txapelketa.**17:00etan:** Haur jolasak.**17:30ean:** Igartza Loinazko III. Patata tortila lehiaketa.**19:00etan:** Zazpitakoa.**21:00etan:** Euskal kantu afaria mozturoriturik.**23:00etan:** Kontzertuak gaztetxean.**Irailak 11, igandea:****12:30ean:** Errondaila.**17:30ean:** Herri kirolak.**20:00etan:** Buruhandiak.


Loinatz Janaridenda
frutak eta barazkiak

Igartza Oleta, 10
Beasain
Tel.: 943 086 594



JULIAN MUJIK

Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 10 ☎ 943 88 01 96 BEASAIN

ANZIZAR

T A B E R N A

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17

BEASAIN



LOTO PRIMITIVA
1 X 2

Festa onak pasa!

☎ 943 08 61 62
Igartza Oleta, 12
BEASAIN

Itsasondo

Herriko festak irailaren 16tik 18ra

Irailak 16, ostirala:

16:30etan: Haur jolasak.

19:30etan: Futbol partiduak: Arama-Itsasondo.

18:00etan: Pilota partiduak.

21:00etan: Herri afaria.

23:00etan: 'Ingo al deu' eta 'Egurra ta kitto' taldeen kontzertua.

Goizaldean: Danborrada eta txokolate jana.

Irailak 17, larunbata:

10:00etatik 13:00etara: Haur tailerrak, Guraso Elkartek antolatuta.

13:00etan: Beitiko igoera.

14:30etan: Paella lehiaketa.

17:30etan: Jolasak.

Ondoren: Triki poteoa.

21:00etan: Otarteko jana.

Ondoren: Playback lehiaketa.

23:00etan: Kontzertua.

Ondoren: Playback lehiaketa.

Oharra: Eguerdirako mozorrotuta ateratzea eskatzen da.

Irailak 18, igandea:

Egun guztian: Txaranga eta haurrentzako puzgarriak.

10:30etan: Altzagarateko igoera.

12:00etan: Hamaiketakoia.

12:30etan: Euskal dantzak.

14:00etan: Bazkari herrikoia Kux Kux txarangarekin.

20:00etan: Sagardo dastaketa.

Itsasondo

Urkiko festak

Irailak 10, larunbata:

20:00etan: Suziri jaurtiketa festak hasteko.

21:00etan: Lagunarteko afaria elkartean.

23:00etan: Laja eta Mikel trikitilariak.

Irailak 11, igandea:

10:00etan: Meza nagusia.

11:00etan: Hamaiketakoia Izer eta Lutxurdio trikitilariekin.

14:30etan: Bazkaria.

18:30etan: Herri kirolak: Arrospide eta Ugareburu aizkolariak eta Goenatxo aita-semeak harrijasotzaileak.

20:00etan: Izer eta Lutxurdio trikitilariak.

Irailak 14, asteazkena: Gurutze Deunaren eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketakoia Elortza eta Larrañaga trikitilariak alaiturik.

14:30etan: Bazkaria.

19:00etan: Erromeria Elortza eta Larrañaga trikitilariekin.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ARANDIA

GARAJEA

MULTIMARKA

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK


N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnada 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate





zuhatzki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak,
kontraleihoak,
ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



LOOK UP

www.jasindustrial.com



**Garraiorako eta jasotzeko
teknologia eta makineria.**

**Geroz eta pertsona gehiagok
euren negozioa
gorenera daramate.**

Normaldutako garabietan aukera zabala dugu erabilgarri: garabi bereziak, portiko-garabiak, polipastoak, orga eta transbordadoreak.

Aldiz, zerbait bereziaren bila bazabiltza, zure beharretara egokitutako eskaerei aurre egiteko lan taldea prest dugu.

Ohikoenak diren beharrei erantzuten diegu kalitate eta salneurri baldintza lehiakorrenetan.

Eraman zure negozioa gorenera.

Lazkao

Udako ikastaroetako kultur ekintzak

Irailak 6, asteartea:

21:30ean: Aitor Furundarena musikaria, Maizpideko zinema aretoan.

Irailak 14, asteazkena:

21:30ean: Jose Ramon Agirre 'Marron' ataundarraren 'Dolpo' diapositiba emanaldia, Maizpideko zinema aretoan.

Irailak 21, asteazkena:

21:30ean: Bertso afaria, Anjel M. Peñagarikanorekin eta Julio Sotorekin, Maizpideko zinema aretoan.

Ezkio Itsaso

Kizkitzako Amaren eguna

12:00etan: Meza nagusia.

Egun guztian: Baltzola anaiak trikitilarien erromeria.

Egun guztian: Itsasoko jaietan gaztetxoek ateratako argazki erakusketa izango da ikusgai.

Beasain

Pirritx eta Porrotx, irailaren 17an

Azkeneko urteetan bezala, irailaren hirugarren larunbatean Pirritx eta Porrotx pailazoan 'Ongi etorri Pupu eta Lore' ikuskizuna izango da Antzizar kiroldagian, Chernobilgo lagunak elkarteak antolatuta. Bi saioa izango dira: 16:30ean eta 18:30ean.

Beasain

Usurbeko igoera, kros herrikoia

Beasainmendiko jaiaren barruan, aurten ere, Usurbeko igoera kros herrikoia jokatu da. Irailaren 4an, goizeko 11,30etan hasiko da, 4,7 kilometroko lasterketa, Beasaingo Artzaienea tabernako plazatik. Izen ematea, 10:00etan irekiko da, irteera puntuan bertan. 10 euro ordaindu beharko dira. Launa sari banatuko dituzte, gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Irabazleentzat, 120na euro eta txapel bana; bigarrenentzat 70na euro; hirugarrenentzat 50na euro; eta herriko lehenengo gizonezkoarentzat eta emakumezkoarentzat, sari berezia. Probaren marka hausteagatik, 80 euroko saria egongo da. 2005ean Juan Mari Garinek egin zuen denborarik onena: 21 minutu eta 24 segundo.

Arrastaka Mendi taldea Picos de Europa

Arrastaka Mendi Taldeak Peña Santa (2.596 m) "Canal Estrecha"tik igotzeko irteera antolatu du, irailaren 9, 10 eta 11n. Kantabriako mendilerroan, Leongo probintzian dago Kokatua. Igoera oso malkartsua du, ia eskaladaren mugakoa, beraz, eskalada tekniken ezagutza eta esperientzia beharrezkoak dira. Irteera honetan parte hartzeko interesatuta daudenak, Iturrioz kaleko Ehunmilak-Arrastaka lokalean egingo den bilerara azaldu beharko dute, irailaren 6an, 19:30ean. Informazio gehiagorako: www.arrastaka.net. Irteera honetan parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da mendiko federatu txartela izatea.

Igartzako dantzarien eguna

Irailak 10, larunbata:

12:00etan: Beasaingo dantzarien irteera San Martin plazatik.

12:30ean: Beasaingo dantzariak, Igartzan.

13:30ean: Sagardo eta odolki dastatzea, Dolarean.

18:00etan: Erromeria Aiko taldearekin.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

2011-2012 MATRIKULA ZABALIK

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea (MU)

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurketa, kalkuloa, ikasketa teknikak

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde, 7 - BEASAIN
ikaskide@ikaskide.net 943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462



Ataun

San Gregorioko festak

Irailak 1, osteguna:**13:30ean:** Umeentzako bazkaria, Zelai pilotalekuan.**15:00etatik 18:00etara:** Jokulandia.**21:00etan:** Herri afaria, trikitilariak alaiturik.**Ondoren:** Erromeria, Zelai pilotalekuan.**Irailak 2, ostirala:****14:00etan:** Koadrilen juntadizoa plazan eta zintzur bustitzea.**14:30ean:** Koadrila bazkaria, Lizarrako batukadak alaiturik.**19:30ean:** Erreka jaitsiera.**21:00etan:** Koadrila afaria.**23:00etan:** Indarraren kontzertua.**00:15ean:** 'Patxi Perez eta konpainiarekin' dantzaldia.**Irailak 3, larunbata:****11:00etan:** Meza nagusia.**12:30ean:** Toka txapelketa ataundarrentzat.**14:30ean:** Herri bazkaria bertsolariek alaiturik.**16:00etan:** Plater hausketak.**18:00etan:** Umeen moztorro festa.**Ondoren:** Txokolate jana.**19:30ean:** Goierriko Kastakoen errezitaldia, Joxemiel Barandiaran museoan.**23:30ean:** Bertso saio musikatua, San Gregorioko plazan.**01:00etan:** Kontzertua: Fiachras eta Los Zopilotes Txirriak.**03:30ean:** Helduen moztorro lehiaketako sari banaketa.**Irailak 4, igandea:****11:00etan:** Pintura lehiaketa.**12:30ean:** Punta-puntako esku pilota partidak.**18:30ean:** Herri kirolak.**Ondoren:** Artzain gazta dastaketa.

Mutiloa

Lierniko Andra Mari festak


Irailak 4, igandea:**Goizean:** Goiz eresia txistularien eskutik.**09:30ean:** XXX. Lierniko Txirrindulari proba (gazte maila),

Lierniko Txirrindulari elkartearen eskutik.

13:00etan: Meza nagusia.**Ondoren:** Toka lehiaketa. Eguerdia parteko soinua Iñaki Olarte eta Andoni Elortza trikitilariaren eskutik.**14:30ean:** Herri bazkaria: taldeka etxetik eramandako bazkaria. (Herri bazkarira joan nahi izanez gero Udaletxera deitu irailaren 3a baino lehen).**18:00etan:** Herri kirolak: Iñaki Azurmendi eta Joseba Otaegi aizkoran eta Izeta IV. harria jasotzen.**Ondoren:** Iñaki Olarte eta Andoni Elortza trikitilariaren eskutik erromeria.**Irailak 8, osteguna:****11:30ean:** Meza nagusia.**Egun osoan:** Erromeria Aiora Gorostizu eta Josu Albisu trikitilariarekin.

Ordizia

Eskarabillako festak

Irailak 16, ostirala:**22:00etan:** Mus txapelketa, Itxaropena elkartean.**Irailak 17, larunbata:****12:00etan:** Txupinazoa Bonberian.**12:00etan:** Txupinazoa Bonberian. Erraldoiak, buruhandiak eta kaleko musika.**13:00etan:** Patata tortilla lehiaketa.**17:00etan:** Oin lasterketa (haurrak eta kimuak). Izen emateak irteeran. Ondoren, txokolate jana.**18:00etan:** Otegienea, Altamira eta Eskarabillaren arteko lehia.**19:00etan:** Musika Burrunbazale txarangarekin.**20:00etan:** Haur danborrada.**22:30ean:** Umeentzako moztorro festa dantzaldiarekin.**00:00etan:** Mozorro gaua.**00:30ean:** Kontzertua: Belarra, Skapando eta The Pardels.**Irailak 18, igandea:****11:00etan:** Alborada, herriko txistulariekin.**12:00etan:** Haur jolasak.**13:00etan:** Kale animazioa: gaiteroak, Goierriko Bertso Eskolako bertsolariak eta Antton Imaz eta J.I. Iturrioz abeslariak.**14:30ean:** Herri bazkaria.**Ondoren:** Erromeria: Jalisko Band.**Mendizabal, C.B.****ITURGINTZA - BEROGINTZA****Tel.: 609 614 552 (Iñaki)****659 644 221 (Xabi)****Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA**

Zerain Ordizia

Zeraingo azoka ekologikoa, Goierri Ekologikoa hamabostaldiaren atariko

Biolur (Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkartea), Zerain Dezagun Fundazioak, eta Ordiziako Goierriko Baratzak eta D'Elikatuzek, Goierriko bizitza eta nekazaritza ekologikoen IV. hamabostaldia antolatu dute. Zeraingo XVII. azoka ekologikoa emango dio hasiera hamabostaldiari irailaren 18an. Goizeko 9etatik ordu bietara izango da azoka ekologikoa eta barazkiak, fruta, ogia, gazta, sagardoa, ardoa, olio, txerriak, gozoak, germinatuak, kosmetika naturala, tinte naturalak, pintxo ekologikoa, Goierriko artisautza (keramika, makilak, tailak, zumea, gantxiloa, artilea, kandelak...) ikusi, dastatu eta erosteko aukera izango da. Aintzinako eran, tolarean egindako sagarren muztioa dastatzeko aukera izango da.

Dena den, azokaren leloak dioten bezala, azoka baino gehiago izango da. Tailerrak eta ikuskizunak ere ugari izan dira. Besteak beste, gozogintza tailerra, garaian garaiko elikagaien tailerra, tindatze tailerra, artisauak, tolarea, libigileak eta sokak egitea. Azkenik, arratsaldean, herri kirolak izango dira. Eguna alaituz, Xapre tritikilaria ibiiko da.

Goierriko bizitza eta nekazaritza ekologikoen IV. hamabostaldia

● **Irailak 20, asteartea:** 19:00etan, hitzaldia: 'Baratze ekologikoa terraza eta balkoietan'. Hitzlaria: Amaia Agirre. Zeraingo Kultur Etxean.

● **Irailak 22, osteguna:** 19:00etan, hitzaldia: 'Sendabelarrak eta jateko diren belarrak'. Hitzlaria: Maialen Sarasola. Zeraingo Kultur Etxean.

● **Irailak 24, larunbata:** 10:00etan, bisita eta tailerra: 'Ogi biologikoa nola egin'. Xabi Akizu eta Marilu Gardoki. Ezkio-ltsasoko Hariztizabal baserrian. 15 euro.

● **Irailak 27, asteartea:** 19:00etan, hitzaldia: 'Sendabelarrak eta jateko diren belarrak'. Hitzlaria: Maialen Sarasola. Zeraingo Kultur Etxean.

● **Irailak 29, osteguna:** 19:00etan, mahai ingurua: 'Kontsumo taldeak: esperientziak elkartrukatzea eta etorkizuna'. Ordiziako D'Elikatuz zentroan.

● **Urriak 1, larunbata:** 10:00etan, bisita eta tailerra: Abaltzisketako Naera Haundira bisita. Mermelada ekologikoa. Angela Linskey. 15 euro.

● **Urriko larunbatetan:** Sukaldaritza makrobiotikoa ikastaroa, Jesus Larretxearekin. 180 euro.

Ikastaroetan eta tailerretan parte hartzeko alde zurekin eman behar da izena, lekua mugatua denez. Goierriko Baratzara deitu behar da: 943087498.

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN XVII. AZOKA



Azoka baino gehiago



IRAILAK 18 ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka

Goizez: erakusketa eta tailerrak

Arratsaldez: herri kirolak eta erromeria

ZERAIN PAISAIA KULTURALA

- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Burdinaren Mendia, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

www.zerain.com

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 turismobulegoa@zerain.com





Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 38. zenbakia 2011ko iraila



Asteburu pasa
koloretsuak Zerainen



Irrien Lagunak klubaren aterpetxea Zerainen dago

*Familiarentzat,
taldeentzat
eta
ikastetxeentzat
2-3 eguneko
egonaldiak
eskaintzen
dira*

Zeraindarrek aspalditik daukate harremana Pirritx eta Porrotx pailazoekin. Urritik aurrera, harremana sakonagoa izango da. Goierrihartxok jakin duenez, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei (Katxiporreta taldea), Berria egunkariak eta Elkar argi-



taletxeak sortu duten Irrien Lagunak klubak, Zeraingo aterpetxea, izango dute elkargune.

Asteazken zehar, ikastetxeak eta asteburuetan familiek eta taldeek, Goierriren bihotzean, naturaz eta Zerain Paisaia Kulturalaz gozatzeko aukera izango da Irrien Lagunak Klubeko Largabista, Martinber eta Marikalanbre... pertsonaiekin.

44 pertsonentzako lelekua dago aterpetxean. Lolekua eta otorduak eskaintzeaz gain, ekingintza ezberdinak ere eskainiko dituzte Irrien Lagunak aterpetxean. "2 eta 3 egunetako egonaldia eskaintzen dira. Gai ezberdinak landuko dira, adinaren arabera: industrializazioa, uraren erabilera, egurraren eraldaketa, birziklapena, animaliak, udazkena, erdi aroa Segurari lotuta... Irrien Lagunak Klubeko pertsonaia azalduko dira bisitaldian. Largabista adibidez, naturaren lotura duenez, han azalduko ... Marikalanbre zientziarekin lotuta, ... Martinbertso kulturarekin lotutako pertsona denez, Segurara joango gara...", diote Zeraingo Turismo Bulegokoek.

Zeraindarrak gustura daude elkarlan honekin eta era horretan, Pupu eta Loreren heziketan parte hartuko du Zerainek ere. Dagoeneko gainera, jendea animatzen hasi eta erreserba bat baino gehiago egingo dauka hianbat ikastetxek. Irrien Lagunak aterpetxeko egonaldian parte hartu nahi izanez gero, 943801505 telefono zenbakira deitu edo turismobulegoa@zerain.com posta elektronikora bideratu behar da.

Zer da Irrien Lagunak klubak?

- Pirritxek bikiak izan ditu, Pupu eta Lore, eta orain pailazoak jaio berrien hezkuntzaz ere arduratu beharko dira.
- Sudur gorriek laguntzeko, Berria egunkariak, Elkar argitaletxeak eta Katxiporreta pailazo taldeak sortu duten klubak da Irrien Lagunak. Ateak zabalik ditu klubaren helburuekin bat egiten duten guztientzat.
- Euskal Herriko haurrak, gurasoak eta hezitzaileak bildu nahi dituen klubak da, Pupu eta Lore guztien artean hezteko. Ikuspegi hezitzailea izango du, beraz.
- Pupu eta Loreri, eta hauekin batera Euskal Herriko guztiei, koloretako mundua eraikitzen lagundu nahi klubak, hainbat balore sustatuz, beti ere euskara eta irria oinarri hartuta.

Zer sustatuko du klubak?

- Euskal Herrian pentsaera, kolore eta kultura ezberdinetako jendea bizi denez, aniztasuna balore bezala aldarrikatu nahi du klubak, besteak ezagutuz eta maitatuz gero aniztasuna aberatsa baita beti.
- Euskara: euskaratik eta euskaraz, euskal kulturako esparruak ezagutaraziko dizkie haurrei.
- Bizikidetzari buruzko kultura berritzailea sortzen lagundu nahi du, errespetuan eta elkarriketan oinarrituta, oinarritzko baloreak sustatzeko: berdintasuna, errespetua, elkarriketa, parekidetasuna, elkartasuna, eta askatasuna.
- Ekologia: natura babestea, iraunkortasuna bermatzea, baliabideak zentzumenez erabiltzea, kolore guztien artean berdea zein ederra eta garrantzitsua den ikusarazi nahi du.



Ostiral iluntzetik

2 gau
2 gosari
2 bazkari
afari 1
3 ekintza
94 euro (haurrak)
102 euro (helduak)

Larunbat goizetik

gau 1
gosari 1
bazkari 1
afari 1
3 ekintza
76 euro (haurrak)
81 euro (helduak)


Larunbat arratsaldetik

gau 1
gosari 1
bazkari 1
afari 1
2 ekintza
63 euro (haurrak)
69 euro (helduak)

* Irrien Lagunak klubeko txarteldunek beherapenak izango dituzte.



**Aurkitu
irudi
bakoitzari
bere
bikotea**



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*

Sagu zopa

Autorea: Arnold Lobel
Ilustratzailea: Arnold Lobel
Itzultzailea: Koldo Izagirre
Argitaletxea: Kalandraka
Orrialde kopurua: 64

Erbinude batek sagua harrapatu du zopa egiteko asmotan; baina, azken unean, saguak zopari ezinbesteko osagai bat falta zaiola ohartarazten dio: ipuinak. "Zopa lehor samarra aterako zaizu. Ez dauka ipuinik". Eta, lau ipuinen bidez, heriotza atzeratu ez ezik, saihestu ere egingo du saguak.

Beren sinpletasunean, ipuin bakoitzak gure baitako gaitz baten berri ematen du, bukaera zoriontsuen bidez errematatuz.

6 urtetik aurrera.



Marilixar eta hiru hartzak



Autorea: Gerda Muller
Ilustratzailea: Gerda Muller
Itzultzailea: Aztiri
Argitaletxea: Tarttalo
Orrialde kopurua: 40

Gogoratzen duzu hiru hartzen etxera sartzen den neskatoaren ipuina? Aulkiak lehenik, zopa katiluak jarraian eta oheak azkenik probatu eta beti txikiena aukeratzen duen neskatoaren ipuin hura? Ba ipuin horretxan bertsio bikaina da hau: ilustrazio deigarriekin eta testu zainduarekin, tamaina handian eta tapa gogorrekin... Eskuratu gabe utzi ezin dugun gutizia bat, labur esateko.

Lau urtetik aurrera.

7 aldeak

Goiko eta beheko irudiaren artean 7 desberdintasun daude. Aurkituko al dituzu?



Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

	6	5		4			8	
			3			7	6	
			5			3	9	
2						5		
	4		7		8		1	
8	7	9		2			3	6
				5	3		4	7
	5	8			6		2	
		4	2			8		

goierri^H artxoren
lagunak:

 **IRIZAR**





Itsasoko Alegi auzoko eskolumeak 1932-33 ikasturtean

Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera: Rufina Etxeberria (Zabalegi), Maria Aierbe (Uribar), Joxepa Lasa (Albitsugoikoa) eta Damiana Bidaurreta (maistra).

Bigarren ilaran: Maria Barrenetxea (Atinbarrena), Pakita Arzelus (Sarriegibarrena), Maria Mujika (Urteaga), Joxepa Epelde (Jauregibarrena), Antonio Intxausti (Errota), Migel Goitia (Atsusain), Juanita Arzelus (Sarriegi), Maria Tolosa, Luzio Iraeta (Errazti), Eugenio Azurmendi (Atsusain), Petra Aramendi (Errazti) eta Maria Mujika (Atsusain).

Hirugarren ilaran: Joxepa Enatarriaga (Erbetatxiki, Gabiria), Mercedes Iza (Izabekoa), Joxepa Maiora (Agerberri, Gabiria), Inazia Atin (Altzibar, Gabiria), Joxepa Intxausti (Errota), Inozentzio Ugarteburu (Zozabarro), Kristina Ugarteburu (Zozabarro), Inazio Ugarteburu (Zozabarro), Julian Mujika (Atsusain), Joxepa Aramendi (Errazti) eta Agustina Arzelus (Sarriegibarrena).

Laugarren ilaran: Felisa Lasa (Albitsugoikoa), Pilar Ormazabal (Urruti, Gabiria), Domingo Iza (Izabekoa), Domingo Barrenetxea (Atinbarrena), Jesu Etxeberria (Zabalegi), Pako Intxausti (Errota), Santiago Aierbe (Uribar), Joxe Etxeberria (Zabalegi), Patxi Etxeberria (Zabalegi) eta Juan Mari Arzelus (Sarriegibarrena).

Lurrean eserita: Pako Aranburu (Ostatu), Kaetano Iraeta (Errazti), Eduardo Atin (Altzibar, Gabiria), Pablo Irizar Yurrita (Etxeberri, Gabiria) eta Pablo Irizar Irastorza (Zubimusu, Gabiria).



ibaiondo
altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxa: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Zuriñe

Edergintza

Tel.: 647 314 771 Garmendia Otaola, 5 - beheia 3 BEASAIN

MANIKURAK

PEDIKURAK

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

MAKILLAJEAK

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

BRONTZEZTATZEAK

DEPILAZIOAK



berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

Barandiaran
ZERAMIKAK
Beasain
senpere 7
943 887 972
www.
Barandiaranzeramikak
.com



elduaiaien

hizkuntzaeskola • academia de idiomas

MATRIKULA ZAITEZ!!

2011-12 ikasturtea

HIZKUNTZA DESBERDINEN AUKERA ZABALA:

ingeleza, euskera,
frantsesa, alemaniera,
italiera...



www.elduaiaien.com

DONOSTIA:

ONDARRETA, T. 943 31 07 53

INTXAURRONDO, T. 943 27 24 63

TOLOSA (4 centros), T. 943 67 47 33

LASARTE, T. 943 37 27 81

URNIETA, T. 943 55 58 58

VILLABONA, T. 943 69 63 73

ALEGIA, T. 943 65 57 26



ISO 9001-2008
(sn Sn Ondarreta)